| | |
|---|---|
| **GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU-BATZARRAK 2018KO MARTXOAREN 13AN LEHENENGO DEIALDIAN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 13 DE MARZO DE 2018.** |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTA** |

Keltse Eiguren Alberdi And.

| | |
|---|---|
| **BATZARKIDEAK** | **V O C A L E S** |

Joseba Arregui Martínez Jn.
Álvaro González Pérez Jn.
Elena Coria Yanguas And.
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.
Jose Luis Landa Arteche Jn.

| | |
|---|---|
| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamazortziko martxoaren hamairuan, lehenengo alkateordea, Keltse Eiguren Alberdi andrea bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a trece de marzo de dos mil dieciocho, y bajo la presidencia de la primera teniente de alcalde, dña. Keltse Eiguren Alberdi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

Lehendakariak, legeak eskatzen duen kide- kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian,

La Presidenta,visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a

Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**108.- UDALEKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO MARTXOAREN 6AN EGIN DUEN OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

**108.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 6 DE MARZO DE 2018.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2018ko martxoaaren 6ko bilerakoa, hain zuzen.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 6 de marzo de 2018.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA**

**109.- ERAIKUNTZAKO MATERIALEN HORNIDURA LUZATZEA.**

**109.- PRÓRROGA DEL SUMINISTRO DE MATERIALES DE CONSTRUCCIÓN.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: URTEBETEZ luzatzea (hirugarren luzapena), 2018-06-01etik 2019-05-31ra, JOSÉ RAMÓN YANGUAS CARRASCAL jaunarekin (NAN: 16.037.920-C) sinatutako kontratuaren indarraldia: ERAIKUNTZAKO MATERIALEN HORNIDURA, bere eskaintza ekonomikoan jasotako unitateko prezioetan, eta 45.000 euroko gehieneko urteko aurrekontuan, BEZaren % 21 barne (37.190,08 € gehi BEZaren % 21i dagozkion 7.809,92 €).

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (tercera prórroga), desde el 01/06/2018 al 31/05/2019, la vigencia del contrato suscrito con D. JOSÉ RAMÓN YANGUAS CARRASCAL con DNI: 16.037.920-C, del SUMINISTRO DE MATERIALES DE CONSTRUCCIÓN por los precios unitarios recogidos en su oferta económica y por un presupuesto máximo anual de 45.000.- euros anuales, 21% de I.V.A. incluido (37.190,08.-€ más 7.809,92.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

BIGARRENA: Luzapen horri aurre egiteko behar den gastua baimentzea eta xedatzea: 37.190,08 €, gehi 7.809,92 € (BEZaren % 21i dagozkionak).

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 37.190,08.-€ más 7.809,92.-€ correspondiente al 21% de I.V.A. para

hacer frente a la citada prórroga.

**110.- GOBERNU IREKIKO EKINTZETAKO EGINKIZUN ETA FUNTZIOAK KUDEATZEKO AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA ESPEZIALIZATUA ADJUDIKATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

EGITATEZKO AURREKARIAK
LEHENENGOA.- Getxoko Tokiko Gobernu Batzarraren 386. Erabakiaren bidez, 2017-09-19ko bilkura arruntean, erabaki zen arauzko izapideak hastea baimentzea, GOBERNU IREKIAREN EKINTZEN EGINKIZUN ETA FUNTZIOAK KUDEATZEKO ESPEZIALIZATUTAKO AHOLKULARITZA TEKNIKOKO ZERBITZUA adjudikatzeko, 28.000,01 eurotan (HOGEITA ZORTZI MILA EURO ETA ZENTIMO BATEAN), % 21eko BEZa barne. Modu berean, prozedura negoziatuaren bidez kontratatzea erabaki zen, publizitaterik gabe.

Kontratua URTEBETEKO (1) epean egikarituko da, sinatzen denetik zenbatzen hasita. Hura BESTE URTEBETEZ luzatu ahalko da, eta guztira ezingo du BI (2) URTE baino gehiago iraun.

Kontratuaren balio zenbatetsia 46.281,01 eurokoa da (BERROGEITA SEI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA ZENTIMO BAT).

**110.- ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE ASESORÍA TÉCNICO-ESPECIALIZADA PARA LA GESTIÓN DE TAREAS Y FUNCIONES DE LAS ACCIONES DEL GOBIERNO ABIERTO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

ANTECEDENTES DE HECHO
PRIMERO.- Mediante Acuerdo nº 386 de la Junta de Gobierno Local de Getxo, en sesión ordinaria de fecha 19/09/2017, se acordó autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación del SERVICIO DE ASESORÍA TÉCNICO-ESPECIALIZADA PARA LA GESTIÓN DE TAREAS Y FUNCIONES DE LAS ACCIONES DEL GOBIERNO ABIERTO, por importe de 28.000,01€ (VEINTIOCHO MIL euros y UN céntimos), IVA del 21% incluido, acordándose igualmente proceder a su contratación por Procedimiento Negociado, sin publicidad.

El plazo de ejecución del contrato será de UN (1) AÑO, a contar desde la fecha de la firma del mismo. El contrato será prorrogable por OTRO AÑO MÁS, sin que la duración total del mismo pueda exceder de DOS (2) AÑOS.

El valor estimado del contrato asciende a la cuantía de 46.281,01€ (CUARENTA Y SÉIS MIL DOSCIENTOS OCHENTA Y UN euros y UN céntimos).

BIGARRENA.- 2017-09-20an lau enpresari aipatutako espedientea irekitzen zela jakinarazi zitzaien, eta eskaintzak egiteko gonbidapena egin zitzaien; horretarako, egutegiko 15 (HAMABOST) eguneko epea eman zitzaien, gonbidapena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Halaber, kontratatzailearen profilean espediente honi buruzko informazioa jaso da, norgehiagoka-prozedura sustatzeko asmoz.

Epe hori amaitutakoan, 2 (BI) enpresak proposamena aurkeztu zuten.

HIRUGARRENA.- 2017-10-10ean dokumentazio orokorra zuen LEHENENGO GUTUN-AZALA ireki zen jendaurrean. Honako enpresa hauek aurkeztu ziren lizitaziora:

- IBATUZ, GOBIERNO ABIERTO, PARTICIPACIÓN, NUEVAS TECNOLOGÍAS, S.L.
- BATIRTZE DIEZ DELGADO

Dokumentazioa aztertuta, aurkeztutako 2 eskaintzak onartu ziren.

LAUGARRENA.- Gero, Administrazio klausulen pleguaren 22. klausulan xedatutakoarekin bat etorriz, BIGARREN GUTUN-AZALA ireki zen, "NEGOZIATU BEHARREKO ALDERDIAK" zeuzkana, hau da, alderdi ekonomikoa eta urteko gutxieneko ordu presentzialen kopurua gainditzen duen ordu-kopurua, emaitza honekin:

SEGUNDO.- Con fecha 20/09/2017 se comunica a cuatro empresas la incoación del expediente de referencia, invitándoles a presentar ofertas, concediéndoles para ello un plazo de 15 (QUINCE) días naturales a contar desde el siguiente al recibo de la invitación.

Asimismo, se incluye la información relativa a este expediente en el Perfil del Contratante, con el fin de fomentar la concurrencia competitiva.

Finalizado dicho plazo 2 (DOS) empresas presentan proposición.

TERCERO.- El día 10/10/2017 se realiza, en acto público, la apertura del SOBRE PRIMERO, conteniendo la documentación general. Se presentan a la licitación a las siguientes empresas:

- IBATUZ, GOBIERNO ABIERTO, PARTICIPACIÓN, NUEVAS TECNOLOGÍAS, S.L.
- BATIRTZE DIEZ DELGADO

Examinada la documentación se admiten las 2 ofertas presentadas.

CUARTO.- A continuación, y de conformidad con lo dispuesto en la claúsula 22 del Pliego de Claúsulas Administrativas, se procede a la apertura del SOBRE SEGUNDO, que contiene los "ASPECTOS SUJETOS A NEGOCIACIÓN", a saber, el aspecto económico y el número de horas anuales de presencia que excedan las mínimas exigidas, con el siguiente resultado:

| **ENPRESA**<br>**EMPRESA** | **PROPOSAMEN EKONOMIKOA** (**Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua:** 23.140,50 €, BEZa kanpo)<br>**PROPOSICIÓN ECONÓMICA** (**Presupuesto Base de licitación** 23.140,50€ - IVA no incluido) | **URTEAN EXIJITZEN DIREN GUTXIENEKO ORDU PRESENTZIALEN KOPURUA GAINDITZEN DITUZTEN ORDUAK**<br><br>**HORAS ANUALES DE PRESENCIA QUE EXCEDAN LAS MINIMAS EXIGIDAS** |
|---|---|---|
| **1.- IBATUZ, GOBIERNO ABIERTO, PARTICIPACION, NUEVAS TECNOLOGÍAS, S.L.** | **21.186 €** | **42 ordu / horas** |
| **2.- BATIRTZE DIEZ DELGADO** | **23.100 €** | **42 ordu / horas** |

Baldintza administratiboen agiriaren 22. klausularen azken paragrafoan xedatutakoaren arabera eta hasierako eskaintza ekonomikoan lizitazio tasaren % 3 baino gehiagoko beherapenak egon direnez, negoziazio-txanda bakarra egin zen.

De conformidad con lo establecido en el último párrafo de la cláusula 22ª PCA y dado que en la oferta económica inicial se han alcanzado rebajas superiores al 3% del tipo de licitación, se realizará una única ronda de negociación.

BOSGARRENA.- Baldintza ekonomiko administratiboen agiriaren 22. atalean ezarritako negoziazioko izapideari jarraipena emanez, 2017-10-10ean lehen aipatutako lizitatzaileei kontraeskaintzak aurkezteko epea irekitzen dela jakinarazi zitzaien.

QUINTO.- Como continuación del trámite de negociación previsto en el apartado 22 del pliego de cláusulas económico-administrativas, el día 10/10/2017 se comunica a los licitadores antedichos la apertura del plazo de presentación de contraofertas.

Emandako epea amaitutakoan enpresa batek kontraeskaintza aurkeztu zuen.

Finalizado el plazo otorgado, una empresa presenta contraoferta.

SEIGARRENA.- 2017-10-18an, NEGOZIATU EZIN DIREN ETA AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI buruzko HIRUGARREN gutun-azala ireki zen jendaurrean, eta honako emaitza atera zen:

SEXTO.- Con fecha 18/10/2017 se realiza, en acto público, la apertura del sobre TERCERO, relativo a "CRITERIOS NO SUJETOS A NEGOCIACIÓN Y NO EVALUABLES AUTOMÁTICAMENTE", con el siguiente resultado:

| **ENPRESA**<br>**EMPRESA** | | **AURKEZTUTAKO AGIRIAK**<br>**DOCUMENTACION PRESENTADA** |
|---|---|---|
| **1.- IBATUZ, GOBIERNO ABIERTO, PARTICIPACION, NUEVAS TECNOLOGÍAS, S.L.** | | ESKAINTZA TEKNIKOA<br>OFERTA TÉCNICA |
| **2.- BATIRTZE DIEZ DELGADO** | | ESKAINTZA TEKNIKOA<br>OFERTA TÉCNICA |

Jarraian, eta lizitazioak agindutako pleguekin bat etorriz, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatu eta zenbakitu zen eta aurkeztutako eskaintzak Komunikazio Arlora igorri ziren, dagokion balorazioa egin zezan:

Seguidamente, y de conformidad con los Pliegos que rigen la licitación, se procede a foliar y numerar la documentación presentada y se remiten las ofertas presentadas al Área de Comunicación, para que sea realizada la valoración correspondiente.

ZAZPIGARRENA.- 2017-11-08an Komunikazio Arloko arduradunak erreferentziazko prozedurara aurkeztutako proposamenen abantaila handi edo txikiagoari buruzko Txosten Teknikoa egin zuen, lizitazioa agintzen duen pleguetan jasotako balorazio irizpideak betez, balorazio horretan eskaintza ekonomikoa kontuan hartu gabe; eta honako emaitza hau atera zen:

SÉPTIMO.- Con fecha 08/11/2017, el Responsable del Área de Comunicación, emite Informe Técnico, sobre la mayor o menor ventaja de las propuestas presentadas al procedimiento de referencia, de acuerdo con los criterios de valoración recogidos en los Pliegos que rigen la licitación sin tener en cuenta en dicha valoración la oferta económica, con el siguiente resultado:

| **ENPRESA**<br>**EMPRESA** | **IBATUZ GOBIERNO ABIERTO PARTICIPACION** | **BATIRTZE DIEZ DELGADO** |
|---|---|---|
| **B.1.1 Planak eta metodologia operatiboak diseinatu eta antolatzeko proposamena.**<br><br>**B.1.1 Propuesta de diseño y organización de planes y metodologías operativas.** | 10 | 8 |
| **B.1.2 Kudeaketa eredua eta lan plana**<br>**B.1.2 Modelo de gestión y Plan de trabajo.** | 10 | 7 |
| **B.1.3 Jarraipen eta ebaluazio sistema.**<br>**B.1.3 Sistema de seguimiento y evaluación.** | 3 | 2 |
| **GUZTIRA**<br>**TOTAL** | **23** | **17** |

ZORTZIGARRENA.- Ezarritako epea amaitutakoan, BATIRTZE DIEZ DELGADOK KONTRAESKAINTZA aurkeztu zuen (eta IBATUZ, GOBIERNO ABIERTO, PARTICIPACION, NUEVAS TECNOLOGÍAS, S.L.k hasierako eskaintza mantendu zuen). Beraz,

OCTAVO.- Finalizado el plazo previsto, ha sido sido presentada CONTRAOFERTA por parte de BATIRTZE DIEZ DELGADO, (manteniendo IBATUZ, GOBIERNO ABIERTO, PARTICIPACION, NUEVAS TECNOLOGÍAS, S.L. su oferta inicial), por lo que se procede a la

aurkeztutako gutun-azalak ireki ziren, emaitza honekin:

apertura de los sobres presentados que arroja el siguiente resultado:

| **ENPRESA EMPRESA** | **PROPOSAMEN EKONOMIKOA (Lizitazioko oinarrizko aurrekontua,** 23.140,50 €, BEZa kanpo) **PROPOSICIÓN ECONÓMICA (Presupuesto Base de licitación** 23.140,50 € - IVA no incluido) | **EXIJITZEN DIREN URTEKO GUTXIENEKO ORDUAK GAINDITZEN DITUZTEN ORDUAK** **HORAS ANUALES DE PRESENCIA QUE EXCEDAN LAS MINIMAS EXIGIDAS** |
|---|---|---|
| **1.- IBATUZ, GOBIERNO ABIERTO, PARTICIPACION, NUEVAS TECNOLOGÍAS, S.L.** | **21.186 €** | **42 ordu/horas** |
| **2.- BATIRTZE DIEZ DELGADO** | **20.000 €** | **42 ordu/horas** |

BEDERATZIGARRENA.- Gero, 4. gutun-azala ireki zen, hau da, NEGOZIATZEN EZ DIREN ETA AUTOMATIKOKI EBALUATZEN DIREN ALDERDIENA. Aurkeztutako gutun-azalak ireki ziren, emaitza honekin:

NOVENO.- A continuación procede la apertura del sobre 4º, es decir, el correspondiente a ASPECTOS NO SUJETOS A NEGOCIACIÓN Y EVALUABLES AUTOMÁTICAMENTE por lo que se procede a la apertura de los sobres presentados que arroja el siguiente resultado:

| **ENPRESA EMPRESA** | **AHOLKULARITZAKO EDO ESKU HARTZEKO EKINTZAK** **ACCIONES DE ASESORAMIENTO O INTERVENCIÓN** |
|---|---|
| **1.- IBATUZ, GOBIERNO ABIERTO, PARTICIPACION, NUEVAS TECNOLOGÍAS, S.L.** | **11 EKINTZA, AURKEZTUTAKO AGIRIEN ARABERA 11 ACCIONES SEGUN DOCUMENTACION PRESENTADA** |
| **2.- BATIRTZE DIEZ DELGADO** | **16 EKINTZA, AURKEZTUTAKO AGIRIEN ARABERA 16 ACCIONES SEGUN DOCUMENTACION PRESENTADA** |

Jarraian, lizitazioak agindutako pleguekin bat etorriz, aurkeztutako eskaintzak Komunikazio Arlora igorri ziren, dagokion balorazioa egin zezan:

Seguidamente, y de conformidad con los Pliegos que rigen la licitación, se procede a remitir las ofertas presentadas al Área de Comunicación, para que sea realizada la valoración correspondiente.

HAMARGARRENA.- Komunikazio Arloko arduradunak, 2018-01-10ean, txosten teknikoa igorri zuen, automatikoki ebaluatu beharreko

DÉCIMO.- Con fecha 10/01/2018, el Responsable del Área de Comunicación remitió Informe Técnico en relación con los criterios evaluables

irizpideei buruz. Txosten horretan ondokoa jaso zen:

1) Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako eskaintza ekonomikoetako batek ere ez dauka balio anormal edo neurrigaberik.

2) EBALUATU BEHARREKO IRIZPIDEEN balorazio koadroak. Hauek dira:

automáticamente. En dicho informe se recogen lo siguiente:

1) Que ninguna de las ofertas económicas presentadas por las empresas licitadoras incurre en valores anormales o desproporcionados.

2) Los cuadros relativos a la valoración de los CRITERIOS EVALUABLES DE MANERA AUTOMÁTICA, siendo estos los siguientes:

**A1: ESKAINTZA EKONOMIKOA:** eskaintza ekonomikoa baloratu zen (GEHI. 60 PUNTU):
**A1: OFERTA ECONÓMICA:** se valora la oferta económica (MÁX 60 PUNTOS):

| **ENPRESA**<br>**EMPRESA** | **ERABILI BEHARREKO FORMULA**<br>**FÓRMULA A UTILIZAR** | **A1 ATALEKO PUNTUAZIOA**<br>**PUNTUACIÓN APDO. A1** |
|---|---|---|
| **IBATUZ, SL (CIF B95822904)** | Oinarrizko puntuazioa = Gehien. puntuazioa X eskaintza onena / aurkeztu beharreko eskaintza.<br>Puntuación Base = Puntuación máxima X Mejor oferta / Oferta a analizar | 56,64 |
| **BATIRTZE DIEZ (DNI 44974760P)** | | 60,00 |

**A2: URTEKO GUTXIENEKO PRESENTZIAZKO ORDU-KOPURUA GAINDITZEN DUTEN ORDUAK:** 7 ORDU BAKOITZEKO PUNTU 1 eman zen (gehi. 6 PUNTU):
**A2: HORAS ANUALES DE PRESENCIA QUE EXCEDAN DE LAS MÍNIMAS EXIGIDAS:** se valora con 1 PUNTO CADA 7 HORAS (MÁX. 6 PUNTOS):

| **ENPRESA**<br><br>**EMPRESA** | **URTEKO GUTXIENEKO PRESENTZIAZKO ORDU-KOPURUA GAINDITZEN DUTEN ORDU-KOPURUA**<br><br>**Nº DE HORAS PRESENCIA QUE EXCEDAN DE LAS EXIGIDAS** | **PUNTUAZIOA 7 ORDUKO (ZATIKIAK EZ DIRA BALORATUKO)**<br><br>**PUNTUACIÓN CADA 7 HORAS (NO SE VALORAN FRACCIONES)** | **A2 ATALEKO PUNTUAZIOA**<br><br>**PUNTUACIÓN APDO. A2** |
|---|---|---|---|
| **IBATUZ, SL (CIF B95822904)** | 42 | 1 | 6 |
| **BATIRTZE DIEZ (DNI 44974760P)** | 42 | | 6 |

**A3: AHOLKULARITZA EDO ESKU HARTZE EKINTZAK:** EKINTZA BAKOITZA, SEIGARRENETIK AURRERA, PUNTU BATEKIN BALORATU ZEN, lehenengo bostak nahitaezko betekizuna izanik (GEHI. 11 PUNTU):

**A3: ACCIONES DE ASESORAMIENTO O INTERVENCIÓN:** se valora con 1 PUNTO CADA NUEVA ACCIÓN A PARTIR DE LA SEXTA, siendo las 5 primeras requisito obligatorio (MÁX. 11 PUNTOS):

| **ENPRESA**<br><br>**EMPRESA** | **AURKEZTUTAKO EKINTZA KOP.**<br><br>**Nº ACCIONES PRESENTADAS** | **EKINTZA BERRI BAKOITZEKO PUNTUAZIOA**<br>**PUNTUACIÓN POR CADA NUEVA ACCIÓN** | **A3 ATALEKO PUNTUAZIOA**<br><br>**PUNTUACIÓN APDO. A3** |
|---|---|---|---|
| **IBATUZ, SL (CIF B95822904)** | 11 | 1 | 11 |
| **BATIRTZE DIEZ (DNI 44974760P)** | 0 | | 0 |

Aurrekoa ikusirik, AUTOMATIKOKI EBALUATU BEHARREKO IRIZPIDEETARAKO lortutako azken puntuazioak honako hauek dira:

A la vista de lo anterior, las puntuaciones finales que se obtienen para los CRITERIOS EVALUABLES DE MANERA AUTOMÁTICA son las siguientes:

| **ENPRESA**<br>**EMPRESA** | **A1 ATALEKO PUNTUAZIOA**<br>**PUNTUACIÓN APARTADO A1** | **A2 ATALEKO PUNTUAZIOA**<br>**PUNTUACIÓN APARTADO A2** | **A3 ATALEKO PUNTUAZIOA**<br>**PUNTUACIÓN APARTADO A3** | **PUNTUAZIO OSOA**<br>**PUNTUACIÓN TOTAL** |
|---|---|---|---|---|
| **IBATUZ, SL (CIF B95822904)** | 56,64 | 6 | 11 | 73,64 |
| **BATIRTZE DIEZ (DNI 44974760P)** | 60,00 | 6 | 0 | 66,00 |

HAMAIKAGARRENA.- Aurreko ataletan jasotakoak kontuan izanik, lortutako behin betiko puntuazioak, guztira, ondoko hauek dira:

UNDÉCIMO.- Teniendo en cuenta lo que se recoge en los apartados anteriores, las puntuaciones finales totales que se obtienen son las que se señalan a continuación:

| **ENPRESA**<br>**EMPRESA** | **NEGOZIATU EZIN DIREN ALDERDIAK**<br><br>**ASPECTOS NO SUJETOS A NEGOCIACIÓN** | **NEGOZIATU BEHARREKO ALDERDIAK (Eskaintza ekonomikoa + urtean exijitzen diren gutxieneko ordu-kopurua gainditzen duten orduak)**<br>**ASPECTOS SUJETOS A NEGOCIACIÓN (Oferta económica +** | **GUZTIRA**<br><br>**TOTAL** |
|---|---|---|---|

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | **Horas anuales de presencia que excedan las mínimas exigidas)** | |
| **IBATUZ, GOBIERNO ABIERTO, PARTICIPACION, NUEVAS TECNOLOGÍAS, S.L.** | 34,00 | 62,64 | **96,64** |
| **BATIRTZE DIEZ DELGADO** | 17,00 | 66,00 | **83,00** |

HAMABIGARRENA.- Aurreko guztia ikusita, enpresari honako errekerimendu hau egin zitzaion, SPKLTBaren 146.4 eta 151. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako:

a) Bere gaitasun juridikoaren eta jarduteko eta kontratatzeko ahalmenaren frogagiria, hau da, baldintza ekonomikoen eta administrazio-baldintzen pleguaren 21.1. idatz-zatian zerrendatutako agiriak.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

c) 1.059,30 euroko (MILA ETA BERROGEITA HEMERETZI euro eta HOGEITA HAMAR zentimoko) behin betiko bermea eratu izana.

Espedientean jasota dago enpresak aurrez aipatutako errekerimendua betetzean aurkeztutako dokumentazioa.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (SPKLTB), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onetsita, irailaren 27ko 14/2013 Legeak emandako bertsioan, ekintzaileak eta haiek

DUODÉCIMO.- Visto cuanto antecede, se requiere a la empresa a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 TRLCSP, a saber:

a) Acreditación documental de su capacidad jurídica y de obrar y su habilitación para contratar, es decir, los documentos relacionados en el apartado 21.1 del Pliego de Cláusulas económico-administrativas.

b) Hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

c) Haber constituido la garantía definitiva por importe de 1.059,30€ (MIL CINCUENTA Y NUEVE euros y TREINTA céntimos).

En el expediente consta la correspondiente documentación presentada por la empresa al cumplimentar el requerimiento antedicho.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, en su versión dada por la Ley 14/2013, de 27 de septiembre, de apoyo a los

nazioartekotzeko laguntza emateari buruzkoa.

II.- Administrazio Publikoen Kontratuen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak onetsitakoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren aurka egiten ez duen guztian.

III.- Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; apirilaren 18ko 781/1986 LEDak onartutako testu bat egina eta aplikatu behar den eta horri lotuta dagoen gainerako legeria; Euskadiko tokiko erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legea, eta aplikatu behar den eta lotura daukan gainerako legeria.

IV.- Udaleko Gobernu Batzarrari dagokio proposatzen den adjudikazioa egitea, kontratazio-espediente honetan kontratazio-organo eskuduna baita.

Kontratazioko, Informazio Sistemetako eta Kiroletako Arloko zinegotzi-arduradunak hala eskatuta, Gobernu Batzordeari honako hau igorri zaio kontuan har dezan:

ERABAKI PROPOSAMENA

LEHENENGOA.- IBATUZ, GOBIERNO ABIERTO, PARTICIPACION, NUEVAS TECNOLOGÍAS, S.L. enpresari, B95822904 IFK, adjudikatuko zaio GOBERNU IREKIAREN EKINTZEN EGINKIZUN ETA FUNTZIOAK KUDEATZEKO ESPEZIALIZATUTAKO AHOLKULARITZA TEKNIKOKO ZERBITZUA, 21.186 eurotan

emprendedores y su internacionalización.

II.- El Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, en lo que no se opongan al TRLCSP.

III.- Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por RDL 781/1986, de 18 de abril y demás legislación conexa que resulte de aplicación; Ley 2/2016, de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi y demás legislación conexa que resulte de aplicación.

IV.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

A instancia del Concejal Responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO

PRIMERO.- Adjudicar a la empresa IBATUZ, GOBIERNO ABIERTO, PARTICIPACION, NUEVAS TECNOLOGÍAS, S.L., con CIF B95822904, el SERVICIO DE ASESORÍA TÉCNICO-ESPECIALIZADA PARA LA GESTIÓN DE TAREAS Y FUNCIONES DE LAS ACCIONES DEL GOBIERNO ABIERTO, por importe de 21.186€ (VEINTIUN MIL CIENTO OCHENTA Y SÉIS euros), más

(HOGEITA BAT MILA EHUN ETA LAUROGEITA SEI euro), gehi 4.449,06 € (LAU MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI euro eta SEI zentimo), % 21eko BEZarenak.

4.449,06€ (CUATRO MIL CUATROCIENTOS CUARENTA Y NUEVE euros y SÉIS céntimos), correspondientes al 21% de IVA.

Kontratua URTEBETEKO (1) epean egikarituko da, sinatzen denetik zenbatzen hasita. Hura BESTE URTEBETEZ luzatu ahalko da, eta guztira ezingo du BI (2) URTE baino gehiago iraun.

El plazo de ejecución del contrato será de UN (1) AÑO, a contar desde la fecha de la firma del mismo. El contrato será prorrogable por OTRO AÑO MÁS, sin que la duración total del mismo pueda exceder de DOS (2) AÑOS.

HIRUGARRENA.- SPKLTBko 156.1. artikuluan adierazitakoaren arabera, adjudikaziodunak Kontratazio Zerbitzuaren bulegoan (helbidea: Foru kalea, 8) agertu beharko du kontratua administrazio-dokumentu gisa gauzatzeko, hamabost laneguneko gehieneko epean, erabaki honen jakinarazpena jasotzen denetik aurrera zenbatu beharrekoa.

TERCERO.- El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.1 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen berri emango zaie prozedura honetan parte hartzen duten enpresa lizitatzaileei, eta txosten hauen kopia bana bidaliko zaie:

CUARTO.- Notificar la presente resolución a las empresas licitadoras participantes en el presente procedimiento, así como dar traslado a las mismas de una copia de los siguientes informes:

1) 2017-11-08ko txosten teknikoa, Komunikazio Arloko arduradunak egina, AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI buruzkoa.

1) Informe técnico de fecha 08/11/2017, emitido por el Responsable del Área de Comunicación sobre los CRITERIOS NO EVALUABLES DE MANERA AUTOMÁTICA.

2) 2018-01-10eko txosten teknikoa, Komunikazio Arloko arduradunak egina, AUTOMATIKOKI EBALUATU BEHARREKO IRIZPIDEEI buruzkoa.

2) Informe técnico de fecha 10/01/2018, emitido por el Responsable del Área de Comunicación sobre los CRITERIOS EVALUABLES DE MANERA AUTOMÁTICA.

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK**

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES**

**111.- 2018KO GARAPENERAKO LANKIDETZA-PROIEKTUETARAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ONESTEA.**

Garapen Lankidetzarako zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

1.- Garapen lankidetzarako proiektuen diru-laguntzen 2018ko oinarriak onestea.

2.- Diru-laguntza horietarako gastua onestea, Lankidetzako partidaren kontura. Guztira 391.737 euroko gastua da.

3.- 2018ko proiektuen diru laguntza deialdia onestu eta aurkezteko epea irekitzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu hozteko hurrengo egunean, eta ixtea proiektuak aurkezteko epea argitalpenaren osteko egunetik hasita hilabete batera.

Deialdia Diru Laguntzen Datu Base Nazionalean erregistratu.

**111.- APROBACIÓN DE LAS BASES REGULADORES DE LA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES A PROYECTOS DE COOPERACIÓN AL DESARROLLO, 2018.**

A propuesta de la concejala responsable de Cooperación al Desarrollo, se acordó:

1.- Aprobar las bases reguladoras de subvenciones a proyectos de cooperación al desarrollo correspondiente al ejercicio 2018.

2.- Aprobar el gasto destinado a dichas subvenciones, que asciende a un total de 391.737 euros con cargo a la partida de Cooperación.

3.-Aprobar la convocatoria de subvenciones de proyectos de 2018 y abrir el plazo para la presentación de proyectos al día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia finalizando el plazo al mes de dicho día.

Registrar la convocatoria en la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK, ETA INGURUMENA**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS, Y MEDIO AMBIENTE**

**112.- KONPORTE KALEKO 8.EAN DAGOEN HIGIEZINEAN IGOGAILU BAT INSTALATZEKO OBRETARAKO LUZAPENA EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

**112.- CONCESIÓN DE PRÓRROGA PARA LAS OBRAS DE INSTALACIÓN DE UN ASCENSOR EN EL INMUEBLE SITO EN LA C/KONPORTE, 8.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA: Juan Manuel Bengoetxea Camiruaga jaunari, KONPORTE 8ko jabeen erkidegoaren ordezkaritzan, eskatutako luzapena emango zaio, uztailaren amaierara artekoa, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko ekainaren 20ko ohiko bilkuran hartutako 280. erabakian higiezin horretan igogailua jartzeko obrak egiteko aurreikusi zen eperako.

PRIMERO: Conceder a D. Juan Manuel Bengoetxea Camiruaga, en representación de la COMUNIDAD DE PROPIETARIOS KONPORTE, nº 8, la prorroga solicitada, hasta finales del próximo mes de julio, del plazo previsto en el Acuerdo nº 280 de la Junta de Gobierno local, adoptado en sesión ordinaria celebrada el 20 de junio de 2017, para la ejecución de las obras de instalación de un ascensor en dicho inmueble.

BIGARRENA: Erabaki hau nahiz haren aurka jarri daitezkeen errekurtsoak eskatzaileari helaraziko zaizkio, ondorio egokiak izan ditzan.

SEGUNDO: Dar traslado del presente Acuerdo así como de los recursos que proceden contra el mismo al solicitante, a los efectos oportunos.

**113.- LEHEN ERABILERAKO LIZENTZIA EMATEA, COSTEREN KALE PARTIKULARREKO 1. ZENBAKIAN DAGOEN HIGIEZINEKO FATXADA NAHIZ TEILATUA BIRGAITZEKO XEDEZ EGINDAKO OBRETARAKO.**

**113.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN DE LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN DE FACHADA Y CUBIERTA REALIZADAS EN EL INMUEBLE SITO EN LA C/PARTICULAR DE COSTE, 1.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.-
I.- Mª MAR BURGAÑA COBO andreari, Costeren kale partikularraren 1. zenbakiko jabeen erkidegoaren ordezkaritzan, lehen erabilerako lizentzia ematea Areetako Costeren kale partikularraren 1. zenbakian dagoen higiezineko fatxadak eta estalkia birgaitzeko obretarako. Lizentzia hori Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko abenduaren 29an hartutako 493. erabakiaren bitartez eman zen; halaber, erabakia Tokiko Gobernu Batzarraren 2016ko apirilaren

PRIMERO.-
I.- Conceder a Dña. Mª MAR BURGAÑA COBO, en representación de la CCPP PARTICULAR DE COSTE 1, licencia de primera utilización de las obras de rehabilitación de fachadas y cubierta realizadas en el inmueble sito en la calle Particular de Coste nº 1, de Las Arenas; cuya licencia fue concedida por Acuerdo nº 493 de la Junta de Gobierno Local, de fecha 29 de diciembre de 2015, modificado por Acuerdo nº 123 de la Junta de Gobierno Local, de fecha 12 de abril de 2016.

12ko 123. erabakiaren bitartez aldatu zen. Hori guztia honako hauek ikusi ondoren: arkitekto den Javier de Prado Díez jaunak idatzitako eta EHAEOak 2017-02-02an ikus-onetsitako obra-amaierako dokumentazioa, eta Udaleko Zerbitzu Teknikoek 2018-03-02an egindako aldeko txostena.

Todo ello a la vista de la documentación final de obra redactado por el arquitecto D. Javier de Prado Díez, visado por el C.O.A.V.N con fecha 02.02.2017, así como, por el informe favorable emitido por los Servicios Técnicos Municipales de fecha 02.03.2018.

II.- Ebazpen hau eskatzaileari helaraztea, jakin dezan eta zehatz-mehatz bete dezan.

II.- Dar traslado de la presente resolución al solicitante, para su conocimiento y estricto cumplimiento.

Jakinarazten dizuegu EITa ongitzeko ziurtagiria aztertu ondoren REMITE programan sartu dela, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarena, 2018ko martxoaren 1ean.

Les comunicamos que, una vez analizado el certificado de subsanación de deficiencias de la ITE, ésta ha sido volcada al Programa REMITE, dependiente del Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco, con fecha 1 de marzo de 2018.

BIGARRENA.- Berariaz jasota geratzen da lizentziak jabetza-eskubidetik salbu eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2. artikuluan ezarritakoa betez.

SEGUNDO.- Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

HIRUGARRENA.- Ekonomia Arloak dagokion likidazioa egingo du, kontuan izanik aurkeztutako likidazioa 208.539,45 eurokoa dela.

TERCERO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que la liquidación final presentada asciende a 208.539,45€

**114.- ALDAPA KALEKO 1.AN DAGOEN HIGIEZINEAN IGOGAILU BAT INSTALATZEKO OBRETAKO LIZENTZIA EMATEA.**

**114.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA LA INSTALACIÓN DE UN ASCENSOR EN EL INMUEBLE SITO EN LA C/ALDAPA, 1.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.-

I.- JOSE MIGUEL MARTIN RODRIGUEZ jaunari, ALDAPA 1eko jabeen erkidegoaren ordezkaritzan, lizentzia ematea Getxoko Aldapa kaleko 1. zenbakian dagoen higiezinean igogailua jartzeko; hori guztia aurkeztutako proiektuaren arabera, arkitekto diren Oscar Gómez Madrazo jaunak nahiz Laura Bordel García andreak ordezkatzen duten OMG Arquitectos y Urbanismo SCP sozietateak idatzia eta EHAEOak 2016-07-29an ikus-onetsia. Idazkian eskatutakoa guztiz bete beharko du.

Egin behar diren obra nagusiak eskaileraren kutxaren barruan igogailu bat jartzeko dira, eskaileraren esparrua murrizteko. Betiere, 80 cm baino gehiagoko pasabidea bermatu behar da. Atariaren sarreran arrapala bat eraikitzeko asmoa dago, baita bertan dauden 4 eskailera-mailak aldatzeko ere.

Aurkeztutako proiektuan, arkitektoek justifikatu dute ez dagoela teknikoki zein ekonomikoki bideragarri den beste aukerarik eskaileraren zabalera ez murrizteko. Horrexegatik, segurtasun-neurri osagarri hauek proposatzen dituzte, suteetarako:

a) Larrialdietarako argiak jartzea eskailera-kaxan.

b) Su-itzalgailuak jartzea.

c) Suteen detekzio automatiko homologatua instalatzea.

d) Eskailera-kaxak aireztatzea eta argi naturala ditu.

Baldintza hau kontuan hartuko da:

- Jabeen erkidegoak ezagutu beharko du arriskua zenbat areagotzen den korridorearen edota eskaileraren zabalera murriztean, ebakuazioari

PRIMERO.-

I.- Conceder a D. JOSE MIGUEL MARTIN RODRIGUEZ en representación de la CCPP ALDAPA 1, licencia para instalar un ascensor en el inmueble sito en la calle Aldapa nº 1, de Getxo, de acuerdo con el proyecto redactado por OMG Arquitectos y Urbanismo SCP, representada por los arquitectos D. Oscar Gómez Madrazo y Dña. Laura Bordel García, visado por el C.O.A.V.N con fecha 29/07/2016, debiendo de ajustarse enteramente a lo solicitado en su escrito.

Las obras principales a ejecutar son la instalación de un ascensor en el interior de la caja de escalera reduciendo el ámbito de la escalera, garantizando en todo momento un paso mínimo superior a 80 cm, y se prevé la construcción de una rampa en el umbral del portal, así como la modificación de los 4 peldaños de escalera existentes en el mismo.

En el proyecto presentado, los arquitectos justifican que no existe otra alternativa técnica y económicamente viable para que no se reduzca la anchura de la escalera, por ello se proponen las siguientes medidas complementarias de seguridad en caso de incendios:

a) Instalación de alumbrado de emergencia en la caja de escalera.

b) Colocación de extintores.

c) Instalación de detección automática de incendios homologada.

d) La caja de escalera cuenta con ventilación e iluminación natural.

Se tendrá en cuenta la siguiente condición:

- La Comunidad de Propietarios deberá ser conocedora del incremento de riesgo que supone la reducción del ancho del pasillo y/o escalera, tanto

nahiz larrialdietako taldeen esku-hartzeari dagokienez. Horrenbestez, proiektua idatzi duen teknikariak eta jabeen erkidegoaren lege-ordezkariak etxebizitzen titular guztiei jakinarazi beharko diete adierazitako arrisku-handitzea.

para la evacuación como para la intervención de los equipos de emergencias; por ello, el Técnico redactor del proyecto del ascensor así como, el representante legal de la comunidad de propietarios deberán de informar a todos y cada uno de los titulares de la vivienda de dicho incremento de riesgo mencionado anteriormente.

II.- Obra egikaritzean enpresa batek baino gehiagok parte hartzen badu, edo enpresak batek eta hainbat langile autonomok, sustatzaileak lanak hasi aurretik edo hasi bezain laster segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailea izendatuko du, obrek irauten duten bitartean.

II.- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

III. Obrak egin bitartean, indarrean dauden segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte, hirugarrenei kalterik ez eragiteko.

III. Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de seguridad vigentes, para evitar daños a terceros.

IV. Obrak amaitutakoan, ikuskapen-bisita egokia eskatu beharko dute, eta horrekin batera honako hauek aurkeztu:

